

Bixente Serrano Izko

Haiek jubilatuko bagenitu!

B

otoa ematen edo egin ezaz, ez ditugu jubilatuta nahi politikari neoliberal europarrak, eta haiek –mendekuz, ote– ez dute nahi izanen langileok jubila gaitzen 70 urte bete artean. Pentsatzekoa da hauteskunderen emaitzek indar berria emanen diotela eskuin neoliberal horri bere asmoei eusteko. Izugarrikoa da krisi ekonomikoa lehertu denetik hedatzen ari den ofentsiba, lan-urteak luzatze aldera, bai ekonomia bai politika arloko ustezko adituek –direla eskuindar petoak edo *omeneko* ezker-tiarrak– bultzatu dutena.

Bion adinaren kontuak izanen ote du zerikusirik, baina harri eta zur utzi ninduen aldizkari honetako iritzigile batek, Gorka Moreno Marquez soziologia irakasleak, bere “Pentsioen *krisia* dela eta ez dela” artikularekin (2187 zkia., 2009ko ekainaren 7a). “Galdera hauen inguruan hausnartzea ezinbestekoa iruditzen zait. Lehenengo harria botata dago”, amaitzen zuen Gorka Morenok. Ba, horra doa nire bigarren harria –edo lehen zura–.

Irtenbide zirrikitu bat proposatu zuen, *progre* eta sinpatikoa –*light* bezain sinpatikoa–, pentsioen krisiarentzako. Baina ez da hori kezkatu ninduen, haren abiapuntua baizik. Hau da, gaurko pentsio sistemari dagokionez, gure iritzigileak benetako arazo aipaturiko adituen irtenbideetan ikusten zuela, eta ez planteamendu horiei eusteko erabiltzen diren arrazoietan: erran nahi baita, arrazoi horiek zentzudunak izanen bailiran hartzen zituen abiapuntutzat.

Kasualitate hutsez, irakurri berria nintzen artikulua bat, Vincenç Navaroren (Pompeu Fabra Unibertsitateko Errektore eta Zientzia Politikoetako katedraduna, Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedratiko ohia): “*Los errores de Almunia, Fernández Ordóñez y el PPE*”. “Almunia, Fernández Ordóñez eta EPPren erroreak” izeneko. Ongi maite nauen lagun batek bidali zidan posta elektronikoz, zehaztu gabe, baina, non zegoen argitaraturik. Bila joan eta URL honetan aurkitu dut interesatuentzat: www.rebellion.org/noticia.php?id=85233. Biziki gomendagarria. Hain zuzen ere, ustezko adituen arrazoien falaziak agerian uzten dituelako. Ezjakintzat jotzen du katedratikoak *omeneko* hainbat aditu.



JOSU SANTESTEBAN

Adibidez, ez bide dakitelako bizitza-*esperantzaren* luzapena ez doala bat lan-ahalmeneko urteenarekin: batez bertze**ko** bizitza-*esperantza*, funtsean, haur-heriotzaren tasak izugarri murriztu direlako luzatu dela, ez, aldiz, ezta hurrik ere, gaur jaiotzen direnen bizitza-*esperantza* bertze garaietako haur-adin hil-arriskutsuagoa gainditu genuenona baino askoz luzeagoa izanen delako. Hortaz, batez bertze, lan-gaitasuneko urteak ez dira bizitza-*esperantzarenak* bezainbertze luzatu, ez horixe!, berdintu jarraitzen dute lan-mota zabalentzat.

Adibidez, ez bide dakitelako norbanakoaren bizitza-*esperantza* estu-estu lotuta dagoena klase sozial eta lanbide motekin, halako moldez non konparaezina baita 60 urteko eraikuntza-peoi baten lan-ahalmena unibertsitateko ikerle batenarekin.

Batez bertze**ko** bizitza-*esperantza*, funtsean, haur-heriotzaren tasak izugarri murriztu direlako luzatu da, ez, ezta hurrik ere, gaur jaiotzen direnen bizitza-*esperantza* bertze garaietako haur-adin hil-arriskutsuagoa gainditu genuenona baino askoz luzeagoa izanen delako. Hortaz, batez bertze, lan-gaitasuneko urteak ez dira bizitza-*esperantzarenak* bezainbertze luzatu, ez horixe!, berdintu jarraitzen dute lan-mota zabalentzat

Adibidez, ez bide dakitelako pentsio gastuen zamaren bilakaera ezin daitekeela kalkulatu produktibitate hazkundetik at, jakinda preseski askoz hazkorragoa izan dela indize hau pentsioen gastuena baino: hau da, errekurso gehiago egonen direla, langile proportzio txikiagoa izanik ere, produktibitatea hazten den heinean. Adibidez, adibidez...

Omeneko aditu horiek ezjakintzat hartzen dituenaren plantak egin ditu Navarrok, samur maltzurki egin ere: nahita faltsario eta manipulatzailak direla zakarki ez errateagatik. ■